

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LAUDIO UDALA

#### KULTURA, KIROLAK ETA JAIK ZERBITZUA

#### **Kultura Kontseiluaren funtzionamendu-erregelamendua. Behin betiko onarpena**

Laudioko Udalaren Osoko Bilkurak, 2022ko urtarrilaren 31ean egindako ohiko bilkuran, Kultura Kontseiluaren funtzionamendu-erregelamenduari hasierako onespina ematea erabaki zuen. Dagokion iragarkia ALHAOn argitaratu zen 2022ko otsailaren 16an, 20. zenbakian, bai eta udalbatzaren ediktu-oholean eta udalaren webgunean ere, eta jendaurrean jarri zen hogeita hamar egun balioduneko epea ireki zen erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko.

Arazko testu hori jendaurrean egon den aldian ez da alegaziorik aurkeztu.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 49. artikulua eta lege horren beraren 70. artikuluko 2. paragrafoan adierazitakoa betez, Kultura Kontseiluaren funtzionamendu-araudia osorik argitaratuko da ALHAOn, eta ez da indarrean jarriko osorik argitaratu arte eta lege-testu beraren 65. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitako hamabost eguneko epea igaro arte. Honela geratuko da idatzita:

#### **KULTURA KONTSEILUAREN FUNTZIONAMENDU ARAUDIA**

##### **1. artikulua. Kultura Kontseiluaren kontzeptualizazioa**

1. Erregelamendu honen xedea da Kultura Kontseilua arautzea, organo aholku-emailea, eztabaida-organoa eta partaidetza-organoa den aldetik. Haren helburua da udalaren jarduerako edo lankidetzarako proposamenak jaso, sustatu, aztertu eta egitea, kultura-sektoreari dagozkion alderdietan, eta Laudioko udal-mugartean kultura-garapena sustatzeko helburu orokorraren barruan.

2. Kultura Kontseilua Laudio Udalaren Kultura, Kirol eta Jai Zerbitzuaren barruan dago (edo zerbitzu baliokidearen barruan).

##### **2. artikulua. Kultura Kontseiluaren eginkizunak**

1. Herritarren parte-hartzearen arloko udal-arauditik erator daitezkeen beste eginkizun batzuk alde batera utzi gabe, Kultura Kontseiluaren eginkizunak honako hauek dira:

- Kulturaren garapenari lotutako pertsona, eragile eta erakundeen parte-hartze zuzena sustatzea.

- Kulturaren esparru sektorialera zuzendutako programa eta ekimen desberdinei buruzko proposamenak egitea eta Udalarekin lankidetzan aritzea horiek martxan jartzeko.

- Eztabaidatu eta aztertzea Udalak aurkezten eta Kontseiluak eskatu edo egokitzen jotzen dituen puntuak nahiz kulturaren esparruko aurrekontu arruntak eta inbertsioak, bereziki, kulturaren arloko urteko programei buruzko informazioa, jarraipena eta ebaluazioa egitea.

- Kulturaren garapenean esku hartzen duten eragileen arteko koordinazioa indartzea.

- Kulturari lotutako ikerketak, txostenak eta esku-hartzeak sustatzea.

- Kontseiluarentzat interesekoak diren gaietako buruzko informazioa biltzea.

- Egokitzen jotzen dituen proposamenak egitea zerbitzuek ahal bezain ondo funtziona dezaten eta udalerririk kulturaren esparruan dituen eskumenak zein etorkizunean eduki litzakeen ahal bezain zuzenki bete ditzan.

- Oro har, kulturarako estrategia integral bat definitzen, egikaritzen eta horren jarraipena egiten laguntzea.

2. Eginkizun horiek ez dituzte inolaz ere eragotzi edo oztopatuko tokiko ordezkari organoei berez dagozkien erabakitze-ahalmenak.

### **3. artikulua. Kultura Kontseiluaren osaera**

1. Pertsona hauek osatuko dute Kultura Kontseilua:

- **Presidentea:** Audio Udaleko alkate-udalburua edo berak eskuordetutako pertsona.

- **Presidenteordea:** Kultura, Kirol eta Jai Zerbitzuko (edo zerbitzu baliokideko) zinegotzi ordezkaria.

- **Kontseilukideak:**

- Udalbatzaren Osoko Bilkuran ordezkari izateko duten talde politikoetako pertsona bana.

- Laudion kulturaren garapenaren alde diharduten elkarte, herritarren erakunde, talde egonkor eta eragileen 16 ordezkari gehienez (kulturako eta aisialdiko elkarteak, ikasleen gurasoen elkarteak, fundazioak, Audio udalaz besteko erakunde publikoetako ordezkariak ere kontseilukide gisa parte hartu ahalko dute, betiere, baldin eta udalerriko garapen kulturalen zilegizko interes adierazten badute etab.).

- Kultura Asanblada Sektoriala eratua eta funtzionatzen badago, pertsona 2 izendatu ahalko dituzte Kontseiluan ordezkari izateko.

- **Idazkaria:** Kultura, Kirol eta Jai Zerbitzuko langilea (edo zerbitzu baliokidekoa) edo presidentea izendatutako beste pertsona bat.

2. Kontseiluan landu beharreko gaiaren arabera presidentea egokitzat jotzen dituen langile teknikoek, politikoek edota adituek ere parte hartu ahalko dute, baina izaera egonkorrik gabe.

Kontseiluko kideen gehiengo osoak hala eskatzen badu, berariazko langile horiek ere parte hartu ahal izango dute aldi baterako.

3. Kontseilua osatzean, gizonen eta emakumeen parte-hartze parekidea bermatuko da, eta genero-ikuspegia txertatuko da kasuan kasuko gaietan.

4. Kontseiluko kide izateko, herritarren erakundeek, elkarteek zein talde egonkorrek Elkarteen Udal Erregistroan inskribatuak egon beharko dute, euren ordezkariak 16 urtetik gorakoak izan beharko dute eta Audio eduki beharko dute euren ohiko bizilekua. Norbanako gisa parte hartzen duten pertsonen dagokienez, Audioko herritarrek eta 16 urtetik gorakoak izan beharko dute, eta parte hartzeko eskaera euren interesen edo bideratzen duten jardueren kulturalaren bidez funtsatu beharko dute.

5. Kontseiluaren batzarrak irekiak izango dira herritarrentzat, eta, beraz, Audioko herritarrek entzule gisa joan ahalko dute.

6. Presidenteari dagokio gaien zerrenda zehaztea, Kontseiluaren ordezkariak edukitzea, eta batzarraren moderazio-lanak egitea, baita presidentetzak berezko dituen gainerako eskudantziak ere.

7. Presidenteordeari dagokio presidenteari laguntzea eta harekin lankidetzan aritzea, presidentea ordezkatzeko hark batzarrera joan ezin duenean, eta presidentearen eskudantziak erabiltzea horiek eskuordetzan jaso ostean.

8. Kontseilukideen betebeharrak dira Kontseiluaren batzarretara joatea eta aktiboki parte hartzea, eta, hala badagokio, Lehendakariak aztertzean aurkeztu dituzten gaiak bozkatzea.

9. Idazkariari dagokio Kontseiluaren batzarretan laguntza ematea eta horien aktak prestatzea, Kontseiluaren dokumentazioa gorde, izapidetu eta artxibatzea, eta Kontseiluaren jardueren urteko memoria prestatzea, baita idazkariak berezko duen beste edozein eskudantzia ere.

10. Kontseiluan parte hartzen duten pertsonen ez dute ordainsaririk jasoko euren eginkizunak betetzeagatik.

#### 4. artikulua. Kontseilukideak izendatu eta kargua uztea

1. Alkate-udalburuak izendatuko ditu, udal-taldeek proposatuta, Kontseilua osatuko duten ordezkari politikoak. Era berean, titular bakoitzaren ordezkari bakarria izendatuko da, lanpostu hutsak, gaixotasunak edo beste edozein inguruabar pertsonalak eragindako absentsia-kasuetarako.

2. Laudion kulturaren garapenaren alde lan egiten duten elkarteen, herritarren erakundeen talde egonkorren eta bestelako eragileen ordezkariak Alkatetza-Lehendakariak izendatuko ditu, honako arau hauen arabera:

a) Herritarren erakunde, elkarte eta talde egonkorren ordezkariak eta antzeko eragileak: parte hartu nahi duten erakundeek eta pertsonak horretarako zehazten den epean eskatu beharko dute.

Eskaeren kopuruak Kontseiluan dagokien kide-kopurua gainditzen bada, interesdun guztiei egokituko zaie, eskabideok adostu ondoren, titularrak eta ordezkoak izendatzea. Akordiorik lortzen ez bada, zozketa egingo da interesdun guztien artean.

b) Kulturaren Sektoreko Batzarraren ordezkariak Batzarrak berak proposatuko ditu.

3. Alkate-udalburuak izendatuko ditu Audio Udalaz besteko erakunde publikoetako ordezkariak Kontseiluan, erakunde horiek beraiek proposatuta.

4. Zinegotzi diren kontseilukideek kontseilukide izateari utziko diote Udalbatzaren agintaldia amaitzen denean.

Zinegotzi ez diren kideak Kontseiluko kide izango dira, gehienez ere bi urtez, izendapenetik zenbatzen hasita. Nolanahi ere, bi urteko aldi hori berariaz luzatu ahal izango da aldi berdinetan, salbu eta ordezkariak gabeko erakunde, agente edo pertsonak Kontseiluan parte hartzeko interesa adierazten badute eta kargugabetze hori beharrezkoa bada partaidetza berri hori ahalbidetzeko.

5. Kontseilukideek kargua utziko dute inguruabar hauek gertatzen direnean:

- Izendapena ahalbidetu zuten erakunde edo eragileetako kide izateari uzteagatik.
- Izendapena egin zuen erakundearen edo agentearen berariazko erabakiz.
- Kontseiluak berak aztertuko duen bateraezintasuna, ezintasuna edo gaitasungabetzea gertatu bada, betiere, udal idazkariak horren inguruko txostena eman ostean.
- Kontseiluaren presidenteari esanbidezko dimisioa aurkeztuta, idatziz.

6. Esanbidezko dimisioen edo beste arrazoen ondorioz plaza hutsak geratzen direnean, hilabeteko epean bete beharko dira, izendapenerako zehaztu den modu berean.

#### 5. artikulua. Kontseilua batzartzea eta eratztea

1. Kultura Kontseilua urtean gutxienez lau aldiz bilduko da. Kontseiluari berari dagokio, legegintzaldi bakoitzaren hasieran deitutako bileran, ohiko bilkura horien maiztasuna eta horien eguna eta ordua ezartzea.

Aurrekoa gorabehera, urgentziatzko, komenigarritasunezko edo beharrezko arrazoiengatik, Kontseiluak ezohiko bilkurak egin ahal izango ditu. Lehendakariak deituko ditu ezohiko bilkura horiek, bere ekimenez edo gutxienez Kontseiluko kideen herenak eskatuta; urtean, gehienez ere, aparteko 2 bilkura egingo dira.

2. Kontseilua behar bezala biltzeko, lehenengo deialdian, gutxienez, kontseiluburua edo lehendakariordea, idazkaria eta kontseilukideen heren bat bertaratuko dira. Gutxieneko quorum hori lortzen ez bada, Kontseilua bigarren deialdian bilduko da baliozkotasunez, deialdian ezarritako ordua baino hamabost minutu beranduago, eta bertan izango dira, gutxienez, lehendakaria edo lehendakariordea, idazkaria eta 2 kide.

3. Lehendakariak bilkura telematikoak deitu ahal izango ditu, Kontseiluko gainerako kideen iritzia entzun ondoren, eta betiere aho batez. Nolanahi ere, Kontseiluko kide bakoitzari dagokio horietan parte hartzeko behar diren baldintzak jartzea.

**6. artikulua. Kontseiluaren deialdia**

1. Kontseiluaren presidentek egingo du batzarrerako deialdia, mezu elektronikoko baten bidez; mezuan, batzarraren eguna, ordua eta lekua adieraziko dira (edo telematikoki egingo dela adieraziko da, horretarako sistemarekin batera).

Ohiko bilkura presentzialak eta telematikoak Kontseiluaren bilkura egin baino gutxienez bost egun baliodun lehenago deitu beharko dira.

2. Ezohiko bilkuran, Kontseilua bildu baino gutxienez bi egun baliodun lehenago bidaliko da deialdia.

3. Bilkurarako deia zein egunetan egin behar den zenbatzeko, ez dira kontuan hartuko ez deialdiaren eguna, ez Kontseiluaren bilkura egiteko eguna.

**7. artikulua. Kontseiluaren eztabaidak eta erabakitze-sistema**

1. Kontseiluaren presidentek batzarrak zuzenduko ditu, eztabaidak moderatuko ditu eta beharrezko neurriak hartuko ditu batzarrak behar bezala bideratzen direla ziurtatzeko.

2. Erabakiak eta iritziak eztabaidazkoak izango dira, inoiz ez lotesleak, udal-organo erabakitzailerantz. Nolanahi ere, Kontseiluan ateratako ondorioak edo emaitzak Batzorde Informatiboan azalduko dira, bilera egin eta berehala, erabakitze legimitazioa duten udal-organoek azter ditzaten.

3. Lehendakariari dagokio Kontseiluan bozkatzaren diren gaiak erabakitzea. Kasu horretan, baliozkotasunez emandako botoen gehiengo soilez hartuko dira Kontseiluaren irizpenak.

4. Bozketa arruntak izango dira, eta botoa baiezkoa, ezezkoa edo abstentzioa izango da, eta ezin izango da botoa eskuordetu.

Berdinketa gertatuz gero, lehendakariak kalitateko botoa emango du.

Teknikariek, Kontseiluko Idazkaritzak eta bilkuran parte hartzen duen eta Kontseiluko kide egonkor gisa izendatzen ez den beste edozein pertsonak ezin izango dute bozketetan parte hartu, aurreko eztabaidetan parte hartzeari kalterik egin gabe.

**8. artikulua. Kontseiluaren aktak**

1. Kontseiluak egiten duen batzar bakoitzaren akta egingo du idazkariak, zeinetan bertaratu-tako kideak, gaien zerrenda eta erabakien puntu nagusiak, baita izandako bozketak eta horien emaitzak ere, jasoko baitira.

2. Kontseiluaren batzarren aktak Kultura, Kirol eta Jai Zerbitzuan (edo zerbitzu baliokidean) artxibatuko dira, eta udal webgunearen bidez argitaratuko dira.

**9. artikulua. Interpretazioa eta garatzeko arauak**

Alkate-udalburuari dagokio Erregelamendu honetako artikuluko guztiak interpretatzeko, argitzeko eta garatzeko behar diren ebazpenak ematea, bai eta, hala badagokio, sor daitezkeen lege- edo erregelamendu-hutsuneak betetzeko eta hura hobeto aplikatzeko beharrezko edo komenigarri diren xedapenak hartzeko ere, Udaleko Idazkaritza Nagusiak txostena egin ondoren. Nolanahi ere, Alkatetza-Lehendakariak Osoko Bilkurari eta Kontseiluari berari eman beharko die ebazpen horien berri, hartu ondoren egiten den lehenengo bilkuran.

Xedapen indargabetzailea

Erregelamendu honek indargabetu egiten ditu eragindako Kontseilua arautzeko aurretik onartutako beste guztiak, bai eta hura garatzeko emandako udal-erabaki edo -ebazpenak ere.

Azken xedapena

Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen, Toki Araubidearen Oinarriak arautzekoaren 70.2 artikuluan xedatutakoarekin bat, osorik argitaratuko da arautegi hau ALHAO-n Udalbatzaren Osoko Bilkurak behin betiko izaeraz onetsi ondoren, eta, lege-testu beraren 65.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz, indarrean sartuko da aipatutako argitalpena egiten den egunaren biharamunetik hamabost (15) lanegun igarotakoan.

Laudio, 2022ko apirilaren 1a

*Alkate-lehendakaria*

*ANDER AÑIBARRO MAESTRE*